# *Arabako Erromanikoaren apaingarriak, sinboload eta kondairak. Arte ikuspegia*

# *Ornamento, símbolo y relato en el románico de Álava. Panorámica artística*

José Javier López de Ocáriz Alzola

## Sarrera

Europak X. mendetik XIII. mendera, herrixken eta hiribilduen, bietarikoen sorrera, ezagutu zuen. Le Goff-ek dioenaren arabera, kristau pentsamoldearen pean, produkzio feudalaren moduari ekin zioten mende horietan guztietan, harik eta industria-iraultza iritsi zen arte. Raoul Glaberrek dioenez, *elizen mantu zuria* sistemaren oinarrizko pieza zen. Orduko *hirigintza-operazioa* izan zen Erdi Aroko industria nabarmen eta behinena. Etxegintza hark eraginda etorri ziren hainbat lanbide, teknika eta aurrerapen. Erromak adreilua eta marmola erabili zituen bezala, Erdi Aroko etxegileak egur eta harriez baliatu ziren. Berriz ere Le Goffen hitzetan, "Erdi Aroan, egurrezko elizaren lekuan harrizko bat eraikitzea zen aurrerapena, ohorea eta arrakasta lortzea. Izan ere, komunitate eta herrixka askotan, neurriz kanpo eraiki zituzten tenpluak; beharrizan demografikoa edo diruz zelan zebiltzan aintzat hartu gabe."

Clunyko monjeek gidatuta, Europa berriz kristautzeko helburuarekin ugaritu ziren tenpluak denean; liturgia bateratu, klerikoak arteztu, laikoek elizako gaietan zeukaten eskumena kontrolatu, eta eliztarrak menderatzea izan zuten helburu. Herrixketako elizek basilikei jarraitzeko balio zuten; hau da, errege-jauregien edota erromatar nagusien uztarpean jarraitzeko. Etxola zaharren artean, jauregi handia bilakatzen zen eliza. Haren elementu guztiek eder egiten zuten: horma sendoek, margo eta erliebe erakargarriek, ontzi sakratuen distirak, intsentsu-usainak, kandelen argiak, eliz jantzien brodatuek, liburuek, kantuek, misterioak.

Bitxia da, sinplea delako, zelan definitu zuen *eliza* Alfontso X.a Jakitunak bere *Alfontsotar Tauletan*. (1. taula, X. tit, 2. legea): *logar sagrado cercado de paredes e cubierto de*

## Introducción

Entre los siglos X y XIII se suceden en Europa dos nacimientos, el de la aldea y el de la villa. Como señala Le Goff, es el momento que afronta el largo proceso de equilibrio del modo de producción feudal dominado por la ideología cristiana, que perdurará hasta la revolución industrial. El tan citado *blanco manto de iglesias,* en boca de Raoul Glaber, era una pieza fundamental del sistema. Esa gran *operación inmobiliaria* fue la primera y más relevante industria medieval. Muchos oficios, técnicas y avances dependían de su desarrollo y expansión. Roma empleó el ladrillo y el mármol, el constructor medieval usó la madera y la piedra. Citando de nuevo a Le Goff, el progreso, el honor y el éxito medieval consistieron en cambiar la antigua iglesia de madera por una de piedra. Muchas comunidades y aldeas construyeron por encima de sus necesidades demográficas y, a veces, de sus posibilidades financieras.

Esta floración que intentaban controlar los monjes de Cluny, arropaba el designio de recristianizar Europa, uniformando la liturgia, disciplinando a los clérigos, doblegando la potestad laica en temas eclesiásticos, asegurando la sumisión de los fieles. Una iglesia rural representaba la continuación de las basílicas, es decir, del palacio real o de la magnificencia romana. Entre las rudas cabañas, la iglesia era un palacio por sus dimensiones, la solidez de sus muros, el arcano evocador de sus pinturas y relieves, el brillo de los vasos sagrados, el aroma del incienso, las luces de los cirios, los ropajes bordados, los libros, los cantos, el misterio.

No deja de resultar curiosa, por su simplicidad, una definición que se da de *iglesia* en las Partidas de Alfonso X el Sabio (Partida 1ª, tit. X, ley 2ª): *logar sagrado cercado*

*suso ó se allegan los christianos a oyr las horas e a rogar a Dios que les perdone sus pecados. (Horma eta teilatuek estalitako toki sakratua. Orduak entzuteko eta Jaungoikoari bekatuen barkamena eskatzeko joaten dira bertara kristauak).* Hain zuzen ere, *toki sakratu* horren inguruan sortu zen estilo erromanikoa, teknika eta egikera bereziarekin. Arkitektura, eskultura eta pintura batu egin ziren; eta historia horretako protagonisten, landa-eremuko bizilagunen, pentsaera, sinesmen, beldur eta itxaropen guztiak agertu zituen.

Orduko ikuspegia definitzeko lehenago ere erabili dudan irudia erabiliko dut: Arabako arte erromanikoa, liburu ireki bat bezalakoa da. Orrialde batean XII. mendea dator azalduta, eta bestean, XIII. mendea. Norbaitek bigarren orri hori kenduz gero, 1200. urtea mugatzat hartuta, ezer gutxi geratuko litzateke: landa-eremuko artearen hogei bat adibide, xumeak eta bakanak, eta Armentia eta Estibalizko ondare zehatza; biak ere, mende batetik besterako urteetan bukatuta. Bigarren orrialde horretan ditugu hainbat herrixkatako eliza txikiak. Nahikoa ondo kontserbatuta edo ganga eta egituretan zerbait aldatuta iritsi zaizkigu gaur egunera arte. Batzuek ataria baino ez dute gorde ordukotik; horma zati eta leihoren bat, harburuak edo bataiarria. Aro berantiarreko adibide batzuk gorabehera, taxu erromanikoak indar handia dauka. Ganga eta arku zorrotz batzuetan, eta landutako dekorazioan ezaugarri gotiko batzuk igarri arren, sustraiak erromanikoak dituzte: oinarrizko egitura, egiteko moduak eta eraikinen formak. Tenpluei antzematen zaien espiritua, gainera, ez da gotikoa inondik ere. Proportzioek; espazioaren kontzeptuak, hutsune eta beteak, apaingarrien erritmoak ez dute gizaldietako ereduz kanpokorik erakusten. Herrixketako parrokien beharrizanetara ondo egokitutako eredua gailentzen da. Horregatik, beraz, inertziazko erromaniko bati buruz mintza gaitezke. Eta, tarteka gainbehera agertu arren, apaindura-sintesi ederra eta eraikin funtzionalak lortu dira. Zazpi-zortzi mende geroago erabiltzeko moduan dauden obrak.

Gainetik ikusita, hona hemen arte-ezaugarrien laburbilduma bat. Nabarmentzekoa da aztarna erromaniko ugari ditugula Arabako eskualdeetan; batez ere, 1000. urtetik asentamenduak zeuden guneetan. Baziren ordurako hainbat herrixka, 2-3 kilometrora bata bestetik, bakoitza bere elizarekin. Bizilagun gutxiko herriak zirenez eta diruz urri zebiltzanez, eliza apalak dira; egitura sinplea daukate eta beti bera. Erliebeetan dago aldaketarik handiena. Horrek guztiak ekarritako landa-eremuko artea, fenomeno historiko-arkeologiko gisa da gehiago, arte-formei egindako ekarpenagatik baino. Eliza horietako gehienek XIII. mendeko erromaniko be-

*de paredes e cubierto de suso ó se allegan los christianos a oyr las horas e a rogar a Dios que les perdone sus pecados.* En torno a este *logar sagrado* floreció el estilo románico con su técnica y lenguaje, aunando arquitectura, escultura o pintura, como expresión de las mentalidades, credos y creencias, miedos y esperanzas vividos por la población rural, protagonista de esta historia.

Retomo una expresión que me ha servido en ocasiones para sintetizar la panorámica. El arte románico en Álava puede compararse a un libro abierto. Una página comprende el siglo XII, la otra el siglo XIII. Si alguien arranca esta segunda página, poniendo como tope el año 1200, es poco lo que quedaría: una veintena de ejemplares modestos y fragmentarios en el arte rural, además de los monumentos reconocidos de Armentia y Estíbaliz, que parecen finalizados justo antes del tránsito de ambos siglos. La segunda página está cargada de pequeñas iglesias rurales, que han perdurado bastante bien conservadas o han sufrido cambios en bóvedas o en parte de su estructura. De algunas sólo queda la portada, parte de un muro con ventana y sus canes, o la pila bautismal. Pese a fechas que suponemos bastante tardías en algunos casos, el arraigo románico tiene mucho mayor peso que alguna posible aportación gótica en el apuntamiento de la bóveda y de los arcos, o en el tratamiento de la decoración esculpida. A la raíz románica corresponden no sólo la estructura básica, las rutinas de oficio y la herencia de las formas. También el espíritu que anima los edificios no puede aún llamarse gótico. Ni el sentido de las proporciones, ni el concepto de espacio, del vacío y del lleno, ni el ritmo ornamental evocan otra cosa que el modelo centenario, bien adaptado a las modestas necesidades de las parroquias rurales. Por todo ello, se puede hablar de un románico de inercia, donde, pese a situarse en una fase degenerativa, aún se consigue a veces bellas síntesis ornamentales y unos edificios funcionales, pues aún pueden seguir en uso después de siete u ocho siglos.

A vuelo de pájaro, he aquí una breve panorámica de los rasgos artísticos. Cabe señalar una alta densidad de restos románicos, sobre todo en las comarcas alavesas donde el poblamiento estaba ya consolidado desde el año 1000. Se había creado una estrecha red de aldeas, distantes 2 o 3 km entre sí, y que construyen cada una su propia iglesia. Siendo limitados tanto su número de población como sus capacidades presupuestarias, las iglesias son modestas, de estructura simple y repetitiva. La mayor variedad se da en los relieves. Todo ello origina un arte rural, más interesante como fenómeno histórico-arqueológico que como aportación a



*Estibalizko Andre Maria.*
*Porta Speciosa*

*Santa María de Estíbaliz.*
*Porta Speciosa*

rantiarreko ezaugarriak dauzkate. Apaingaietan, aldea igartzen da eskualdeen arabera, nahiz eta eskola zehatz bat adierazterik ez dagoen. Eliz ataria dugu tenpluak sailkatzeko ezaugarri nagusia, gerora berritutako elizetan ere gorde egin delako elementu hori. Atarietan, gainera, erabilitako estiloa nabarmendu ohi da. Eliz atariei buruzko atalean azalduko dugun moduan, Estibalizko *porta Speciosa* deritzonean erabilita apaindurari jarraitu zioten beste hainbat elizatako atariek. Aldiz, Armentiako elizan azaltzen den pazko-ikonografiak ez zuen jarraipenik izan herrietako erliebeetan.

Arabako XII. eta XIII. mendeetako 230 bat elizatako aztarnak gorde dira gaur egun arte; arte erromanikoko ezaugarri estilistikoekin –batzuk berantiarrak–. Aztarna horietatik guztietatik, 90ek intereseko elementuak dauzkate, eta beste 60k interes partzialekoak. Era berean, badira 80 elementu zatitu, jatorrizko lekutik kanpo sarritan: hala nola, eliz atari bat edo bataiarri bat. Distira berezia agertzen dute Armentiako, Estibalizko, eta Markizko San Joan elizek; bai eta beste dozena erdi batek ere, ondo eraiki eta ondo zainduak. Horiez gainera, lekuan lekuko ezaugarriekin, badira beste hogeita hamar bat nahikoa interesgarriak. Azkenik, berrogeita hamar inguru, zatiak baino ez daude.

Araban arkitekturan eta eskulturan ezaugarri erromaniko dotoreak gorde dituzten laurogeita hamar elizak azaltzera ez gara mugatuko. Egindako bilketan aurkitutako emaitzak ere azalduko ditugu, eta datu estatistiko batzuk ere emango ditugu.

65 egitura arkitektoniko oso dauzkagu, eta ia 85 elizak gorde dute burualdea. Horietan guztietan, hirutik bik burualde arteza daukate, eta hirutik batek buru kurbatua; hau da, zirkuluerdiko absidea. Bestetik, 80 elizak baino gehiago ganga erromaniko originala daukate; ia 60 elizak harburu dekoratuak dauzkate; 130 ataritik gora, 190 leihate, 7 elizpe; 15 kanpandorre eta kanpai-horma; 75 bataiarri, eta lekutik mugituta edo lekuz kanpo dauden 60 elementu erromaniko ere bai. Beraz, badago esaterik ondare aberatsa dela, nahiz eta, denboraren poderioz eta historiako gertakizunen ondorioz, galdu egin diren asko eta asko; iraun dutenak baino askoz gehiago.

Dentsitate-kalkuluei dagokienez, esan beharra dago aztarna guztiak zenbatu ditugula, baita txikiena eta bakartuena ere; hau da, berdin kontatzen dela Armentiako eliza zein geroago berritu den beste bat; baldin eta harburuak edo bataiarri bat gorde baditu, esaterako. Beste era batera esanda: datu eta ebidentzia guztiak aintzat hartzen direla, "berregite arkeologiko" bat lortze aldera. Hortaz, XIII. mendearen amaiera hartu dugu,

la historia de las formas artísticas. La mayoría de estas iglesias presentan caracteres del románico tardío del siglo XIII. Según su temática ornamental se agrupan en conjuntos comarcales, cuya filiación no siempre es fácil de establecer. La portada se revela como índice significativo para la clasificación, por haberse conservado aún en iglesias remodeladas y por constituir una buena muestra del nivel estilístico. El despliegue ornamental de la *porta Speciosa* de Estíbaliz, como se indicará en un capítulo dedicado a las portadas, deja una huella seguida por un grupo importante de portadas. En cambio, el rico programa de iconografía pascual de Armentia no encuentra eco apreciable en los relieves rurales.

Han llegado hasta nuestros días en Álava restos o muestras de más de 230 iglesias atribuibles a los siglos XII y XIII, con caracteres estilísticos relacionados con el arte románico, más o menos tardío. De ese conjunto, hay 90 que presentan elementos de interés, además de unas 60 con valor parcial. También pueden señalarse unos 80 elementos fragmentarios, a veces fuera de su emplazamiento original, como una portada o una pila bautismal. En el conjunto más destacado brillan con luz propia Armentia, Estíbaliz, San Juan de Markinez y otra media docena muy bien construidas y en perfecto estado de conservación, además de una treintena de indudable valía, características de los modismos comarcales, y una cincuentena de interés, pero sólo conservadas parcialmente.

Según nuestro criterio, no nos limitamos a exponer las noventa iglesias que en Álava han salvaguardado una rica disposición en su obra arquitectónica y escultórica románica. A raíz de los resultados obtenidos en las recopilaciones realizadas, podemos avanzar algunos datos estadísticos.

Contamos con unas 65 estructuras arquitectónicas completas, y casi 85 iglesias han conservado su cabecera, de ellas 2/3 con cabecera plana y 1/3 curvada, es decir, en ábside semicircular. También pueden contarse más de 80 iglesias que conservan la bóveda románica original, casi 60 presentan canecillos decorados, se contabilizan más de 130 portadas, 190 ventanales, 7 pórticos y 15 campanarios en la doble versión de torre o de espadaña, 75 pilas bautismales, además de unos 60 elementos románicos reemplazados o fuera de contexto. Puede decirse, por tanto, que es un rico patrimonio, aunque lamentando que el paso del tiempo y los avatares históricos nos han privado de un volumen, irremediablemente perdido, muy superior a lo conservado.

Para los cálculos de densidad, debemos aclarar que nos basamos en todos los restos, aún pequeños y

Araban eliza erromanikoen loraldia bukatutzat emandako epetzat.

Multzoko maparen bidez datuak egiaztatuz gero, eskualdetik eskualdera ez da aztarna erromanikoen dentsitate bera ageri. Aztarna erromaniko gehien mendebaldeko Lautadan gorde dira, Gasteizen inguruan; eta, horren ondoren, ekialdeko Lautadan, Agurain aldean, eta Ribera eta Kuartango inguruan, azkenik. Ostera, aztarna erromanikoen dentsitatea askoz txikiagoa da Arabako mendietan: Gorbeialdean, Gaubean eta ondoko haranetan. Eta are txikiagoa da Arabako Errioxako herrietan, baita Bizkaiko golkoaren isurialdeko Amurrio eta Aiarako eskualdeetan ere.

Eskualdeen banaketa abiapuntu hartuta, emaitzak konpara ditzakegu. Ez dira aintzat hartu eliza osoak edo interesgarriak direnak soilik; katalogatu daitezkeen aztarna egiaztagarriak dituzten guztiak baizik:

Hona hemen zortzi eskualdeetako aztarna erromanikoen dentsitatearen gutxi gorabeherako konparazioa, dentsitate handieneko eskualdetik txikienekora:

1. Mendebaldeko Lautada, Gasteiz inguruan: 14 aztarna/100 km² da kalkulua. Hauxe da dentsitatea: eliza bat 7 km²-ko.
2. Riberako eta Kuartangoko haranak: 11 aztarna/100 km². Hauxe da dentsitatea: eliza bat 9,5 km²-ko.
3. Mendebaldeko Lautada, Agurain inguruan: 10 aztarna/100 km². Hauxe da dentsitatea: eliza bat 10 km²-ko.
4. Iparreko haranak: Gorbeialdea: 8 aztarna/100 km². Hauxe da dentsitatea: eliza bat 13 km²-ko.
5 Arabako mendiak, Arraia eta Arana-Kanpezurekin: 7 aztarna/100 km². Hauxe da dentsitatea: eliza bat 14 km² bakoitzeko.
6. Gaubea, Añana eta Valderejo haranak: ia 7 aztarna/100 km². Hauxe da dentsitatea: eliza bat 15 km²-ko.
7. Arabako Errioxa, Sosierra zaharra: 3 aztarna/100 km². Hauxe da dentsitatea: eliza bat 35 km²-ko.
8. Bizkaiko golkoaren isurialdeko Amurrio eta Aiara inguruko eskualdeak: 2,5 aztarna/100 km². Hauxe da dentsitatea: eliza bat 41 km²-ko.

Katalogoko elementuen arabera, Araban neurtutako batez besteko dentsitatea orokorra da, ia 8 aztarna erromaniko dira 100 km²-ko; hau da, eliza bat 13 km²-ko. Irudimena erabiliz, dentsitate izugarri hori Europa osoko mapa batera estrapolatuz gero, milioika puntu-

aislados, es decir que se contabiliza igual la iglesia de Armentia que una iglesia remodelada más tarde, con tal de que conserve o bien unos canecillos o su pila bautismal. Es decir, que se tienen en cuenta todas las evidencias para intentar una "reconstrucción arqueológica", y así retrotraernos al momento histórico de fines del siglo XIII, como cronistas del final de etapa de la gran floración de iglesias románicas en el territorio alavés.

Al relacionar los datos constatados con el mapa de conjunto, se aprecia un carácter desigual en las comarcas sobre la densidad de restos románicos. La más alta concentración de lo conservado aparece en la Llanada occidental, en torno a Vitoria, seguido de la Llanada oriental junto a Salvatierra, y de la zona de Ribera y Kuartango. Es algo menor en la Montaña alavesa, en las comarcas de Estribaciones del Gorbea, y en Valdegovía junto con valles inmediatos. La densidad se ve bastante reducida en la Rioja Alavesa y en las comarcas Cantábricas de Amurrio y Ayala.

A partir de esta amplia división comarcal, podemos comparar los resultados. No tenemos en cuenta las iglesias completas, ni las interesantes, sino todas de las que quedan restos fehacientes que podemos catalogar:

Comparación aproximada de la densidad de restos románicos en las ocho comarcas, que ordenamos de mayor a menor densidad:

1. Llanada Occidental, en torno a Vitoria: el cálculo es de 14 restos/100 km², es decir que su densidad correspondería a 1 iglesia por cada 7 km².
2. Valles de la Ribera y Kuartango: se cuentan 11 restos/100 km², es decir que su densidad correspondería a 1 iglesia por cada 9,5 km².
3. Llanada Oriental, en torno a Salvatierra: se cuentan 10 restos/100 km², es decir que su densidad correspondería a 1 iglesia por cada 10 km².
4. Valles del norte: Estribaciones del Gorbea: se cuentan 8 restos/100 km², es decir que su densidad correspondería a 1 iglesia por cada 13 km².
5. Montaña Alavesa, con Arraya y Arana-Campezo: se cuentan 7 restos/100 km², es decir que su densidad corresponde a 1 iglesia por cada 14 km².
6. Valles de Valdegovía, Añana y Valderejo: se cuentan casi 7 restos/100 km², por tanto su densidad corresponde a 1 iglesia por cada 15 km².
7. Rioja Alavesa, antigua Sosierra: se cuentan 3 restos/100 km², es decir que su densidad corresponde a 1 iglesia por cada 35 km².
8. Comarcas Cantábricas en torno a Amurrio y Ayala: se cuentan 2,5 restos/100 km², es decir



*Markinezko San Joanen portada / Portada de San Juan de Markinez*

txo aterako lirateke. Raoul Glaber Erdi Aroko monjeak aipatzen zuen *elizen mantu zuria*.

Hortaz, Armentia eta Estibaliz Ebroren erdi-ibilguko iparraldean garatutako erromanikoaren aitzindari izan ziren; ez bakarrik Arabari begira, baita kostaldeko herrietara begira ere. Hori dela eta, erraz uler daiteke landa eremuko eliza txiki horiek eliza handiago batzuen ereduari jarraitu ziotela, eredu hori erraztuta. Horrela, arkitektura sendoa sortu zuten, eta kalitateko erliebeez ere baliatu ziren; onak edo ez hain onak, aldiaren eta baliatutako materialen arabera.

Eskualde batetik bestera, gainera, aldea dago, gero zehaztuko dugunez: mendebaldeko Lautadan, Gasteiz inguruan, oso arte zaindua ageri da, gai heraldikoekin, tailu fina, atari ederrak ez oso kargatuak –adibidez, Dura, Otazu eta Mataukun–, edota Otobarren eta Otogoien herri bietako eta Lopidako monumentuak. Ekialdeko Lautadan, Agurain aldean, artea zorrotzagoa, bakunagoa; oso irudi gutxi ageri dira, baina nabarmentzekoak dira, kasurako, Aiarako Andre Maria, Dulantzin. Azpimarragarria da Donemiliagako San Roman, Erroitegi eta Erroetako bataiarrietan erabili den dekorazio geometriko fina. Arabako mendietan, berriz, bitxia da kapitelek atrofia erakusten dutela, galburu espezie baten irudietara mugatuta. Adibide tipiko bat daukagu Maeztuko Santa Eufemia elizakoa, oso emaitza erakargarriarekin.

Landare irudien estilizazioa asko garatu da Mendebaldeko haranetan; Kuartango eta Urkabustaizeko elizetan batez ere, saskigintzaren motiboz apaindutako formak azaltzen dira behin eta berriro, eta gero Zuia eta Zigoitiarantz zabaldu ziren motibo horiek guztiak. Ribera aldean Toberako Andre Marian, Santurden eta oraintsuago Zanbranan aurkitakoak dira nabarmentzekoak.

Arabako Errioxan, Guardian eta Bastidako Kristo eliza kenduta, gauza solteak baino ez daude: Berberana eta Kripan batetik, eta aztarnak Villabuenan. Gaubean argi dago Tuesta aldeko joerak ia ez diela ingurukoei eragin. Honako hauetan baino ez da sumatzen eragina: Alcedoko erliebe batzuetan; Villamaderneko kanpaihorma ederrean; antzinako ale batzuetan Karkamu eta Bellojínen; bai eta Valederejoko Riberako eliza bitxian, haitzartean baitago kokatuta, tobaz eginda, magia handiko atari eta guzti. Oro har, lautadako edo ibar amaierako artea zainduago eta monumentalagoa da, mendialdeko edo ibar estuetako artea baino. Zalantzarik gabe, lotura dago gustu eta arte-garapenaren eta nekazari eta abeltzainen dedikazioaren artean. Izan ere, esanguratsua da, Araban hiri-gutuna eman zieten hogei bat hi-

que su densidad corresponde a 1 iglesia por cada 41 km².

La densidad media general obtenida en Álava, con los elementos catalogados, es de casi 8 restos de iglesias románicas por cada 100 km², es decir de una iglesia por cada 13 km². Una fantasiosa especulación sobre lo que supondría extrapolar esta altísima densidad, casi haría millonario su punteado en el mapa europeo, evocando así aquel *blanco manto de iglesias*, que tanto admiraba al monje medieval Raoul Glaber.

Según puede suponerse, Armentia y Estíbaliz serían ejemplos pioneros del desarrollo románico al norte del Ebro medio, no sólo en Álava, sino también mirando a los territorios costeros. Por ello resulta verosímil la hipótesis de que las iglesias rurales románicas habrían recibido de estos ejemplares nobles, un modelo que ellas han repetido, lógicamente simplificado, impulsando el desarrollo de una arquitectura sólida e incentivando el recurso a los relieves, de más o menos calidad según la época y los recursos.

Se pueden apreciar claras diferencias comarcales, que después trataremos de matizar: en la Llanada occidental en torno a Vitoria se da un arte muy cuidado, con temas heráldicos, talla fina, bellas portadas no muy recargadas, tomando como ejemplo el grupo de Durana, Otazu, Matauco, o los monumentos de los dos Huetos y Lopidana. En la Llanada oriental en torno a Salvatierra, el arte es más austero, con poca presencia de figuras, pero hay que destacar monumentos como Nuestra Señora de Ayala, en Alegría. Sorprende la fina decoración geométrica en las pilas bautismales de San Román de San Millán, Róitegui y Onraita. Respecto a la Montaña alavesa, resulta curiosa la sensación de atrofia en los capiteles, reducidos a una especie de espiga. Un ejemplo típico es el de Santa Eufemia de Maestu, donde el resultado no carece de atractivo.

El gusto por la estilización de lo vegetal ha sido muy desarrollado en los valles del Oeste, sobre todo en Kuartango y Urkabustaiz, con la insistencia en las formas que recuerdan la cestería, cuyos motivos muestran una expansión hacia Zuia y Zigoitia. En la zona de Ribera lo más destacable se puede ver en Santa María de Tobera, Santurde y los hallazgos recientes de Zambrana.

En la Rioja alavesa, salvo Laguardia y el Cristo de Labastida, sólo hay cosas sueltas: Berberana, Cripán, y restos en Villabuena. En Valdegovía se aprecia que el posible foco de Tuesta no deja apenas huella, salvo en algunos relieves de Alcedo, la extraordinaria



*Donemiliagako San Erromaneko bataiarria*

*Pila bautismal de San Román de San Millán*

ribildutan, jatorrizko eliza aldatu nahi izan zutela, eta arte gotikoaren ezaugarri den zabalera eman zietela tenpluei. Edonola ere, eliza erromaniko haiek berregituratu zituztenean, aztarna interesgarriak gorde ziren; aztarnak berantiarrak dira eta taxu gotikoa daukatenak. Horrela, esaterako, Guardiako San Joan eta Andre Mariaren elizetan, eta Urizaharko parrokian. Agurainen, horma artean sartuta geratu zen San Martin eliza zaharra –udal eraikinaren erdigunea, gaur egun–, eta Kontrastan hormaz gaindi geratu zen Elizmendiko Andre Maria, goitik behera berritua. Gainerako hiribilduetan, ia substratu erromaniko guztia deuseztatu zuten.

Bizilagun gutxiko herri egonkorretan, alegia, nekazari eta artzainen herri txikietan gorde ziren eliza erromanikoak, nahikoa baitzuten haien zabalera eta

espadaña de Villamaderne, y ejemplos antiguos en Karkamu y Bellojín, además de la curiosa iglesia de Ribera de Valderejo, tanto por su emplazamiento roquero, por su realización en toba, y por la magia de su portada. En general, las zonas de llanura o fondo de valle ofrecen un arte más cuidado y monumental que las zonas de montaña o de valles estrechos. Sin ninguna duda hay una relación entre el gusto y capacidad de desarrollo artístico, y la dedicación preferente agrícola o ganadera.

Resulta significativo constatar que, de las casi veinte poblaciones que en Álava recibieron cartas pueblas, que las convertían en villa, todas han necesitado modificar sus iglesias originales, resultándoles más apropiada la amplitud que caracteriza al arte gótico.

funtzioekin, nahiz eta, mendeen poderioz eta beharrizan berriei erantzun nahirik, ukitu edo aldaketa bat edo beste egin. Atariak lekuz aldatu zituzten, gangak berreraiki, nabeari beste itxura bat emateko moldaketak egin, presbiterioa nabarmendu erretaula berriak jarrita, kaperak ireki, pulpituak ipini, leihoak handitu, sakristiak itsatsi, apaizetxe edo kanpandorreak berritu... Denak ere, tenpluari beste egikera bat emateko. Horiekin denekin, jakina, jatorrizko lana desitxuratzen zuten. Halere, hain ziren estimatuak atal batzuk, atari eta leihate eder batzuk gorde eta berriz ezarri zituzten berritutako eraikin horietan ere bai.

## Eliza eredu bakuna

Landa-eremuko herrietan oinplanoa nabe bakarrekoa da eta antolamendu laukizuzen luzanga, kaxoi formakoa, eta hiru eta bost arteko ataletan zatikatua. Askoz ere gehiagotan ageri da burualde arteza, borobila eta absideduna baino, bi herenen proportzioa gaindituz. Burualde artezak dira nagusi, tradizio prerromanikoari jarraituz; hau da, forma bakun eta kostu gutxiko teknikei jarraituz. Gangak kanoi-ganga zorrotzez daude estalita gehienetan; oso kasu gutxitan baino ez da azaltzen kanoi erdiko ganga. Kasu batzuetan ojibagangen lehen saiakerak azaltzen dira. Presbiterioaren aurreko garaipen-arkua, tolestuta eta zutabe atxikien gainean etorri ohi da, eta kasu batzuetan binaka; Elie Lambertek dioenez, Espainiako eta Languedoc-eko eskolaren ezaugarria. Bikotekako zutabe hauen adibideak (Tuesta, Otobarren, Otogoien eta Gillernan), XIII. mendearen amaierakoak dira.

Presbiterioaren bi aldeetan horma-hobiak erabiltzeko joera ere zabaltzen da, albo-mahai gisa erabiltzeko; erdi-puntuko arkuekin bao biki erara eratuta. Dozena bat adibide gorde dira gaur egun arte, baina apaingarri finena duten adibideak gaur egungo Arabako lurraldetik kanpo daude: horrelakoa da, adibidez, San Vicentejo eliza, Trebiñun, eta Bedarretako San Migel ere bai, Gipuzkoan. San Vicentejoko elizan gorde den inskripzioaren arabera, santuen erlikiak gordetzen ziren bertan; bai eta ontzi sakratuak eta mezatarako beste tresna batzuk ere. Multzo arkitektonikoei dagokienez, Markizko San Joaneko baseliza gorde da ondoen, harlanduz egina, eta abside eder batekin errematatua.

Gaur egun arte iraun duten 85 burualdeetatik, bi herenak artezak dira, eta heren batek baino ez dute zirkuluerdiko absidea. Eliza berantiar batzuetan, Tuestan, Otobarrenen, Añuan eta Ezkerekotxan adibidez,

Al reestructurar sus iglesias románicas, en todo caso han conservado restos interesantes, siempre tan tardíos que las influencias góticas marcan ya su impronta. Así es el caso de las iglesias de San Juan y Santa María de Laguardia y la parroquia de Peñacerrada. En Salvatierra quedó embebida entre muros la antigua iglesia de San Martín, hoy núcleo del edificio municipal, y en Kontrasta quedó extramuros Nuestra Señora de Elizmendi, muy remodelada. En el resto de las villas prácticamente se arrasó el sustrato románico.

Fueron sólo las aldeas de población reducida y estable, dedicadas a las actividades agrarias y pastoriles, quienes mantuvieron sus iglesias, que les eran suficientes en amplitud y en funciones, aunque a veces la deriva de los siglos o las nuevas necesidades contribuyeron a provocar retoques y sustituciones. Portadas cambiadas de lugar, bóvedas reconstruidas, *maestreos* para repristinar el aspecto de la nave, realces del presbiterio por la instalación de retablos, apertura de capillas, instalación de púlpitos, rasgado de ventanales más luminosos, adosado de sacristías, casas curales o torres de campanario, fueron factores de renovación y recomposición de los templos. La obra original quedaba así desfigurada. Pero la querencia de la obra antigua, su prestigio y su belleza salvaguardaron muchas portadas o ventanales, reinstaladas a veces en edificios renovados.

## Un modelo simple de iglesia

En el ámbito rural, la planta es siempre de una sola nave y disposición rectangular alargada, tipo cajón, segmentada en tramos que oscilan entre tres y cinco. Es mucho más frecuente la cabecera recta que la disposición redonda del ábside, superando aquella la proporción de dos tercios. Esta masiva presencia de cabeceras rectas parece obedecer a una larga tradición prerrománica, de formas más simples y técnica menos costosa. Las bóvedas se cubren regularmente con bóveda de cañón apuntado, salvo escasos ejemplos que presentan bóveda de medio cañón. En algunos casos se muestran ya los primeros ensayos de bóvedas de *ojivas*. El arco triunfal que precede al presbiterio suele destacarse, por aparecer doblado y apoyando sobre columnas adosadas, y en algunos casos pareadas según una característica atribuida por Elie Lambert a la escuela hispano-languedociana. Los ejemplos que acogen estas columnas pareadas, Tuesta, Hueto Abajo, Hueto Arriba y Guillerna, pueden atribuirse a fechas avanzadas del siglo XIII.

zortzi aldeko burualdea daukate, konponbide gotikoetara hurreratuz. Beste behin, elementu gehien Lautadaren bi aldeetan eta Ribera eta Kuartangoko ibarretan daude. Hiruretan, aztertutako burualdeen %60 daude. Absideei dagokienez, 27 daude. Erromatar garaiko edo Erdi Aroko bideei lotuta omen datoz. Esaterako, absidedun hamar eliza ageri dira Lautada igarotzen zuen eta Astorga eta Bordele lotzen zituen erromatar galtzadan zehar. Beste bi multzo, berriz, Arabako Mendietan eta Gaubean, eta han ere bide zaharrak zihoazen.

Kasu batean, Estibalizek, abside hirukoitza dauka. Gainerakoek, baita Armentiak ere, abside bakarra daukate burualdean. Absidedun elizetan, gainera, bolumen alde handiagoa dago nabearen eta presbiterioaren artean, burualde laukoetan baino. Garaipen-arkuak eta presbiterioari altuera ematen dion eskailerak, murrizketa bisuala dakarkiote aurreko espazioari absidedun elizetan. Burualde artezekoetan, ostera, ia ez da murrizketarik igartzen. Buru artez hauek askoz ere bakunagoak dira, eraikuntza sistema tradizionalari jarraituz eginak,

Se constata la práctica de instalar a ambos lados del presbiterio hornacinas sirviendo de credencias, dispuestas como vanos geminados con arcos de medio punto. Se conserva una docena de ejemplos, aunque los más adornados de fina decoración han quedado fuera de la demarcación alavesa actual; como ocurre con San Vicentejo, en Treviño, y con San Miguel de Bedarreta, en Gipuzkoa. Según la inscripción que perdura en San Vicentejo, allí se guardaban reliquias de santos, además de los vasos sagrados y otros instrumentos para el culto. Como conjunto arquitectónico, quizá el mejor conservado es la ermita de San Juan de Marquínez, labrado en piedra de sillería impecable y rematado en un bello ábside.

Tras el inventario realizado, del grupo de 85 cabeceras conservadas, dos tercios corresponden a cabeceras planas y sólo un tercio al ábside semicircular. Algunas iglesias tardías, como Tuesta, Hueto Abajo, Añua o Ezkerekotxa presentan ya cabecera ochavada en la vía de las soluciones góticas. Una vez más, la

*Bellojíneko San Kornelio eta San Zipriano / San Cornelio y San Cipriano de Bellojín*



eta baztertuago dauden haranetan azaltzen dira batez ere. Hala ere, garai batetik aurrera, ekialdeko atala igo egiten dutenez, elkarren gainean jarritako bi leiho ere ateratzen dituzte, gorengoa behekoa baino txikiagoa. Hamar bat elizatan dago horrelakorik: Urkabustaiz, Zigoitia eta Kuartangon.

### Ataria

Armentiako eliz atariko Bildotsaren tinpanoan honako inskripzio hau irakur daiteke: PORTA P(ER) HANC CELI FIT PERVIA CUIQUE FIDELI: "ate honetan du fededunak zerurako sarbidea". Hau da, Kolegiataren giro teologikoan zehazten da ateko mezu hori, zerurako deia eginez, Jerusalem zerutiarra edo Paradisurako bidea. Ezaugarri kristologiko argi eta garbiak dituzten zeinu ikonografikoek indartzen dute are gehiago testuak dioena: Bildots Mistikoa eta Krismoia, ohiko *akolitoak* ondoan dituztela: aingeruak, Elias eta Joan Bataiatzailea. Hurbileko tinpano handiak, Igokundeari eskainitakoak, Kristoren apoteosia nabarmentzen du; garaile, pazkozikloari amaiera emanez, eta oso garatuta erliebeetan. *Descensus ad Inferos* deritzon eszenarekin dagoen kontrastea ere esanguratsua da oso. Satanen porrota azaltzen da bertan; Infernuko Ateko zaindaria, Leviatanen atzapar gogorretan irudikatua.

Edonola ere, Armentiako adierazpen eta aberastasunak ez du oihartzun handirik, Arabako erromanikoan tinpano gutxi baitaude. Gaiari eta antzinatasunari erreparatuz, badira gauza interesgarriren batzuk: Añesekoa kasurako. Añesekoan, Bibliaren historia dator azalduta, Armentian irudikatutako amaiera gordinari kontrajarria. Izan ere, Adan eta Evaren erorialdiak Jesu Kristoren erredentzioa dakar, Adam berria. Zanbranan aurkitutako tinpanoan, berriz, Andre Maria goratzen da, bai eta haren semearen gizakundea ere. Donostiako San Telmo museoan gorderik, badira Bastidako tinpanoko zati batzuk; bertan Krismoiaren zeinu kristologikoa ageri da berriz ere. Ez dugu ahaztu behar elizako ate erromanikoak erromatarren garaipen arkuaren esangura eta formatua hartzen duela; eta, testuinguru berri honetan, Kristok hildakoan paradoxikoki erdietsitako garaipena dakar gogora, bai eta erlijio kristauaren zabalkundearen garaipena ere.

Beste kasu batzuetan, gainera, arkibolta eta kapitelek ere Bibliako edo moralitatearen mezua helarazten dute. Arabako erromanikoan erabili diren gaiak ikusita, baina, ez omen dirudi atari eta hormetan *harrizko Biblia* bat zabaltzeko asmoa egon izan denik. Izan ere, Eu-

mayor densidad de elementos conservados se encuentra en los dos ámbitos de la Llanada y en los valles de Ribera y Kuartango que, los tres unidos, reúnen el 60% del total de cabeceras del estudio. En cuanto al ábside, del que se cuentan 27 ejemplos, parece relacionado con las viejas rutas romanas o medievales. Por ejemplo, diez iglesias absidales se escalonan a los lados de la antigua calzada romana que cruzaba la Llanada para enlazar en sus extremos Astorga con Burdeos. Otros dos grupos, uno en la Montaña y otro en Valdegovía, también flanquean antiguos caminos.

Sólo un caso, Estíbaliz, cuenta con triple ábside, el resto, incluso Armentia, se contentan con el único que preside el culto. Se constata una mayor diferenciación de volumen entre la nave y el presbiterio en las iglesias con ábside, que en las de cabecera plana. El arco triunfal y la escalera, que eleva la altura del presbiterio, suponen en general una clara reducción visual del espacio frontal en las iglesias dotadas de ábside, lo que no es apenas perceptible en las mayoritarias de cabecera plana. Estas cabeceras rectas son mucho más sencillas, siguiendo el tradicional sistema constructivo, y abundan en los valles retirados. Pero, en un momento dado, elevan de tal manera el paño oriental que incluso albergan dos ventanales superpuestos, siendo inferior en tamaño el colocado arriba. Esto ocurre en una decena de iglesias, situadas en los valles de Urkabustaiz, Zigoitia y Kuartango.

### La portada

En el tímpano del Cordero que destaca en el pórtico de Armentia puede leerse la inscripción: PORTA P(ER) HANC CELI FIT PERVIA CUIQUE FIDELI: "por esta puerta se hace accesible al fiel la Puerta del Cielo". Es decir que en el clima teológico de la Colegiata se explicita el mensaje profundo de la Puerta, como evocación del Cielo, de la Jerusalén Celestial o del Paraíso. Esta alusión del texto es matizada por los signos iconográficos de claro carácter cristológico: el Cordero Místico y el Crismón, secundados por los habituales *acólitos*: Ángeles, Elías y Juan Bautista. El gran tímpano próximo, dedicado a la Ascensión, subraya la apoteosis de Cristo triunfante como culminación de todo el Ciclo Pascual, ampliamente desarrollado en los relieves. Es muy significativo el contraste con la escena del *Descensus ad Inferos*, que ejemplifica la derrota de Satán, como guardián de la Puerta Infernal que en Armentia es simbolizada por las terribles fauces evocadoras del Leviatán.

ropako erromaniko garaiko multzo arkitektonikoetan ere, monje eta kanonikoen gida teologikoari jarraitu ohi zioten kasuetan ere, ez zen beti ardura didaktikoa nagusitu; ez dago *harrizko Biblia* batez hitz egiterik. San Bernardok berak aipatuta, espazio askotxo uzten omen zitzaien bestelako gaiei, baita barregarriei ere.

Ez dira adibide asko horietarikoak, eta denak ere berantiarrak; gainera, mezu eta intentzio barregarri hori, lausotua ageri da, ezkutatu antzean. Tuestako atarian, esaterako, kateatuta azaltzen dira aingeruen irudiekin batera, artzain eta bestelako ogibideen irudiak, eta badira bertan Amabirjinaren irudia eta santu gerrarien irudiak: San Jurgi San Migel, San Martin; baita Sanson bera ere, lehoi bati aurre egiten. Kapiteletako eszenografia, ostera, ez dago guztiz argi: zorionbideak eta baztertu beharreko bizioak omen datoz irudikaturik, eta eskuineko bazterrean infernuko irudi bat: deabruak Leviatanen ahora kondenatuak jaurtitzen.

Atari batzuetan badira elementu zehatz batzuk: esaterako, Guardiako San Joan elizakoan. Portada berantiarra da, eta eskuineko bazterrean Andre Mariaren inguruko gaiak dakartza: Deikunde sendoa, estatua-zutabe bidez adierazia, eta Mariaren gainetik datorren kapitelarekin osatuta, Igokundearen, Jasokundearen eta Koroatzearen uneak nabarmenduz. Gai eskatologikoak ere badira tarteka, baita infernuko eszenak ere, Bernedon eta Bastidako Kristoren elizan. Eta horiekin batera, Done Petri eta San Paulo langai Ondategiko atean; San Migel, herensugea garaitzen, Oreitiakoan; eta aingeru berezi bat Ezkerekotxan. Aipatzekoa da baita Estibalizen pantokrator irudi nano baina barregarri bat dagoela. Profeta bat seinalatzen du ondoan; San Joan Bataiatzailea, itxura batean. Klipeo bat da buru, Bildots Mistikoarekin batera, Luzuriagako apaingarririk gabeko atarian. Uribarri Arratzuko arkiboltetan, gotzain bat, eskaintean diren dama batzuk, errege bat, artzain bat eta zaldi bat dira elkarren ondoan ezarrita. Delika eta Urizaharko atariena, berriz, bizio batzuen aurrean, goratu beharreko jokabide moral egokia omen dator adierazita.

Ehun eta hogei portada inguru dira eta ia gehienetan, ez omen dute Bibliari beren beregi lotutako ikonografia bat –hagiografiko, liturgiko edota morala– erabili. Hortaz, horrelako elementuak ez daudenez, geure buruari galdetzen diogu zein zentzu edo asmorekin egingo ote zituzten horretara atari horiek guztiak. Pentsatzeko da, gutxienez, hiru faktorek eragiten dutela ate baten emaitza globalean. Faktore bi, elizaren estatusaren menpe daude: ahalmen ekonomikoa eta proiektuak zenbaterainoko konplexutasuna

Esta expresividad y riqueza de Armentia no tiene demasiado eco, por la escasez de tímpanos en el románico alavés. Hay casos interesantes por temática y antigüedad, como el de Añes, que relata el comienzo de la historia bíblica, curioso contrapunto al final que indicaba Armentia, pues la caída original de Adán y Eva exigiría la redención por Jesucristo, el Nuevo Adán. Otro tímpano es el descubierto en Zambrana, que proclama la exaltación de María Madre, y al mismo tiempo la Encarnación de su Hijo. Unos fragmentos del tímpano de Labastida conservado en el Museo de San Telmo en Donosti-San Sebastián vuelven a desplegar el gran signo cristológico del Crismón. No debemos olvidar que la puerta románica de la iglesia reedita el formato y el significado del arco de triunfo romano, que en el nuevo contexto proclama la victoria paradójica de Cristo al morir, y también la difusión triunfal de la religión cristiana.

Por ello también, en ciertos casos, las arquivoltas o los capiteles son los portavoces del mensaje de carácter bíblico o moral. Pero, visto el panorama conjunto de la temática románica en Álava, no se puede asegurar que predomine el criterio de desplegar en portadas y muros la *Biblia de piedra*. De hecho, incluso para conjuntos arquitectónicos del románico europeo, muy acompañados por la guía teológica de los monjes o canónigos, es evidente que hay muchos motivos escultóricos que no se rigen por la preocupación didáctica o parenética que justifique el hablar de *Biblia de piedra*. Ya lo vio San Bernardo, protestando del espacio excesivo que se daba a la temática marginal, incluso grotesca.

Son muy contados, y siempre tardíos, los ejemplos que dedican su esfuerzo e intencionalidad concretos a este tipo de mensaje, que en la mayoría queda más velado o discretamente soslayado. Es el caso sobre todo de la portada de Tuesta, en que se encadenan arquivoltas angélicas con escenas pastoriles o de oficios, incluyendo también una pequeña imagen de la Virgen madre, a santos guerreros: San Jorge, San Miguel, San Martín, además de a Sansón desquijarando al león. Y una escenografía no del todo clara en los capiteles, que puede leerse como una libre adaptación de las bienaventuranzas y sus vicios contrarios, rematando en el extremo derecho con una gráfica escena infernal: diablos arrojando condenados a la boca de Leviatán.

Varias portadas contienen elementos puntuales, como es el caso de la de San Juan de Laguardia, también tardía, que dedica su extremo derecho a temas marianos: una potente Anunciación a base de estatuas columnas, que se completa en el capitel que sobrevuela

duen; hirugarren faktoreak, berriz, zerikusia dauka aldi historikoarekin eta eliza egin deneko arte-unearekin. Aztertutako lurralde honetan, hainbat elizak oso aurrekontu murritza zeukaten; eta proiektu bakuna era berean, inertziazko erromaniko garaian eraikia. Babesa izan zuten eliza batzuen kasua –Armentia eta Estibaliz, esaterako–, edo hiribilduetako ondorengo parrokien laguntza kenduta, alderik handiena etor daiteke eliztarren kopuruan; aberastasunean den aldean, nekazaritza edo abeltzaintza ogibide izan; edota babesle batzuek egindako diru-emate zehatzetan, emate horiek proiektua nolabait kontrolatzea ekartzen bazuten ere.

Erdi Aroko elizek hainbat funtzio zeukaten, eta elizek eurek bezala, baita atariek ere. Aztertutako eremuan, nabearen eskuineko aldetik daude irekirik, hegoalderantz begira; arrazoi klimatiko eta eguzkiarekiko lotura sinbolikoak omen daude tartean. Idazki baten baino gehiagotan jasota datorrenez, hiribilduetako eliza batzuek behintzat zin-egite pribilejioa zeukaten, eta zin-egite ekitaldiak eliza horien ate aurrean egiten ziren, *in facie ecclesiae* erako ezkontzetako erritualak ere. Hilerriak ere ekialde, hegoaldean ezartzen ziren nagusiki; hau da, sarreraren ondoan. Batzuetan hilobiratze elizpeak ere eraiki zituzten; Alaitzan eta Okarizen, adibidez.

Aztertutako atari gehienek arku zorrotz samarra daukate; hortaz, antzinatasuna benetan zehazten duen erakusle kronologikotzat har daiteke fenomeno hori. Elementuei dagokienez, normalean pare bat edo hiru zutabe dituzte alde bakoitzean, eta hiru arkibolta gutxienez, inguruko arku-gainen azpian. Alboetako simetria zorrotz gorde ohi da, eta batzuetan nabarmendu egiten da antzeko gaiak edo gai antitetikoak alde bietako kapiteletan jarririk, edota arkiboltetan motibo orekatuak erabiliz. Arkibolta zentrokideen segida mailakatuan ere, antzematen da argi-ilunak txandakatzen direla, baita elementu lauak eta apainduak ere.

Sartuaz batera, fededunaren burua bi ardatzak gurutzatzen diren puntuan paratzen da; ataria egituratzen duen eskema geometrikoko ardatz bertikalak eta ardatz horizontalak bat egiten duten puntuan: behean, plataforma laukizuzena, eta goian, ahurtasun lerromakurra. Kapitelak eta inpostak ia begien parean geratzen dira, zutabearen irudi bertikal bera irudikatuz, eta burua irudikatuz kapitelaren formatu eta egikeran. Norberaren altueratik beheragoko eremu horrek dei egiten dio fededunari; eta goiko eremu arkiboltadunak, ostera, berau inguratzen du. Denak harritzen dituen ataria da; atariaren indarrak harrapatu egiten ditu.

Erreferentzia *teologiko* eredugarria duten ateak asko ez direla ikusi eta gero, tenpluko eraikinaren gaine-

a María con escenas de su exaltación, o Asunción y Coronación. También se rastrean temas escatológicos, incluidas escenas infernales, en Bernedo y el Cristo de Labastida, además de ingenuas evocaciones de San Pedro y San Pablo en la portada de Ondategi, o de San Miguel venciendo al dragón en la de Oreitia, y de un extraño ángel en Ezkerekotxa. Aludiremos más tarde en Estíbaliz a la minúscula pero graciosa representación del Pantocrátor acompañado de una figura profética que le señala con el dedo, quizá San Juan Bautista. Un clípeo con el Cordero Místico preside la austera portada de Luzuriaga. En las arquivoltas de Ullibarri Arrazua se yuxtaponen un obispo, unas damas oferentes, un rey, un pastor y un caballo. Pueden suponerse imágenes alusivas a una exhortación moral frente a ciertos vicios en las portadas de Delika y de Peñacerrada.

